



## I. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

## Bizkaiko Foru Aldundia

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 79/2024 FORU DEKRETUA, uztailaren 4koan, «Bizkaibizi» zerbitzu publikoa arautzen duen prezio publikoa ezartzea erabakitzenten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 7ko 141/2023 Foru Dekretuan aldaketa onartzen duena.

Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 2/2011 Legearen 100. artikuluan jasotako helburu zehatzak lortzea erraztuko duen mugikortasun jasangarria sustatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta itsasadarren bi aldeetako bederatzi (9) udalek (Barakaldo, Berango, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao) lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten 2022ko otsailean, bizikletak alokatzeko zerbitzu publiko bat ezartzeko, BizkaiBizi izenekoa, eta konpromiso irmoa hartu zuten bizikleta garraio-sistema arruntean sar dadin sustatzeko, beste garraiobideen ordezko gisa; mugikortasun jasangarria sustatzeko konpromiso horretatik abiatuta, herritarrei bizikleten mailegu-zerbitzu publiko bat eskaintzeko apustua egin dute, herritarrek ingurumenaren aldetik jasangarria den garraiobide bat izan dezaten hiriarteko joan-etorrietarako.

BizkaiBizi zerbitzuaren erabilera arautzeako mekanismo gisa ordain ekonomikoa kobrazearen helburua publikoari ematen zaion BizkaiBizi zerbitzua unibertsala, jasangarria eta etengabekoa izatea da, eta zerbitzuaren erabilera arrazionala izatea.

Era berean, erabiltzaileek prezio publikoak ordaintzetik sortuko diren baliabideek BizkaiBizi zerbitzua ezartzeak eragindako gastuei aurre egiteko balioko dute.

2023ko irailaren 7an 141/2023 Foru Dekretua onartu zen, «BizkaiBizi» zerbitzu publikoa arautzen duen prezio publikoa finkatzea onartzen duena; bere testuaren 5. artikuluan zerbitzuaren erabilera-gatiko kontraprestazio ekonomikoa kobratzeko egitura ezartzen du, eta sistema horren oinarriak urtebetera arteko iraupena izango duen abonua, ordutegi-tarteetan modulatutako zerbitzu bakoitzeko prezio bat eta erabiltzaileei egin dakizkieken deskontu batzuk izango dira; hori guztia dekretuan eranskinean zehazten da.

Zerbitzua martxan jarri zenetik bizikleta alokatzeko aukera emango duen noizbehinkako erabilera-modalitate bat sartzeko beharra igarri da, bakarrik erabilera horri dago-kion tarifa ordainduta funtzionatuko duena, hau da, abonuaren kontzeptuan inolako zebilekorik ordaindu gabe.

Noizbehinkako erabileren modalitate honi aurre egiteko tarifa espezifiko batzuk ezarri dira, noizbehinkako erabileren modalitaterako azken eranskinean zehazten direnak. Nolanahi ere, «BizkaiBizi» zerbitzu publikoa arautzen duen prezio publikoa finkatzea onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 7ko 141/2023 Foru Dekretuan ezarritako tarifik mantenduko dira.

Halaber, ezabatu egiten da 2023ko abenduaren 31ra arteko tarifei buruzko xedapen iragankor bakarra eta gauza bera gertatzen da eranskinaren lehenengo atalarekin, aldi baterako arau-elementuak direlako eta denbora igarotze hutsagatik indarra galdu dute-lako.

Adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraiki, dekretu hau egitean honako txosten hauek jaulki direla:

- Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa.
- Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
- Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Balibideei buruzko ekainaren 26ko 4/1990 Foru Arauaren 28. artikuluko memoria ekonomiko-finatzarioa.
- Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioaren txostena.



5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Gastua fiskalizatzeko txostena.
7. Legezkotasun-txostena.

Xedapena onartzeko organoak duen eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4. artikuluaren arabera, foru-testu bereko 17.2.a) artikuluarekin lotuta eta, era berean, Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Baliabideei buruzko ekainaren 26ko 4/1990 Foru Arauaren 28. artikuluak ezartzen duenarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokio arau-xedapen hau onartzea.

Azaldutakoa dela bide, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau:

#### XEDATZEN DUT

**Artikulu Bakarra.— «BizkaiBizi» zerbitzu publikoa arautzen duen prezio publikoa finkatzea onartzen duen irailaren 7ko 141/2023 Foru Dekretua aldatzea**

«BizkaiBizi» zerbitzu publikoa arautzen duen prezio publikoa finkatzea onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 7ko 141/2023 Foru Dekretua era honetan aldatzen da:

*Bat.* 5. artikulua honela idatzita geratzen da:

«Kobratuko den ordain ekonomikoak, BizkaiBizi zerbitzua hitzarmenaren arabera finantzatzeko mekanismo gisa kobratuko denak, egitura hau izango du:

- Abonuaren araberako prezio bat ezarriko da; abonuen iraupena aldi baterako izan daiteke, gehienez ere urte natural baterako (urteko abonua). Zerbitzuaren noizbehinkako erabileraaren modalitatearen kasuan, abonuaren ordaintetaren zenbatetako zero eurokoa izango da (noizbehinkako abonua).
- BizkaiBizi zerbitzuaren erabileraaren araberako prezio bat ezarriko da; erabilera-denbora 30 minutuko tarteetan banatuko da lehenengo bi orduetan, eta 60 minutuko tarteetan hortik aurrera, erregelamenduan araututako gehienezko erabilera-denbora amaitu arte. Tarifa horiek erabilitako zerbitzuaren erabilera-modalitateari dagozkionak izango dira (abonuaren modalitatea), eranskinetan adierazten denaren arabera.
- Lehen azaldutako bi puntueta deskontuak egin ahal izango zaizkie, foru dekretu honen eranskinaren arabera, bizikleta ohiko garraiobide gisa erabiltzen duten erabiltzaileei, bai eta urtean zehar mugikortasun iraunkorra sustatzeko egindako kanpainengatik ere. Horren guztiaren berri emango da [www.bizkaibizi.eus](http://www.bizkaibizi.eus) web orriaren bidez».

*Bi.* Xedapen iragankor bakarra kentzen da, indarra galdu dutelako.

*Hiru.* Eranskina aldatu egin da: batetik, lehenengo paragrafoa kendu egin da, indarra galdu duelako; eta, bestetik, 5. artikuluari buruz egindako aldaketaren arabera aldatu da. Aldatutako eranskina foru dekretu honi erantsi zaio.

**Azken Xedapen Bakarra.— Indarrean jartzea**

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta benetan aldatu edo indargabetu arte.

Bilbon, 2024ko uztailaren 4an.

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa  
Sustatzeko foru diputatu,  
SONIA PÉREZ EZQUERRA

Ahaldun Nagusia,  
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA



## ERANSKINA

## 1) Urteko Ordainketa Modalitatea

		Euro
URTEKO ORDAINKETA		25,00 euro/ urteko
ERABILERA BAKOITZEKO TARIFA	0-30 min	0,15 euro
	30-60 min	+0,35 euro
	60-90 min	+0,50 euro
	90-120 min	+0,50 euro
	+ 120 min	+6,00 euro/orduko (edo zatikia)

## 2) Noizbehinkako Ongarria Erabiltzeko Modalitatea

		Euro
ORDAINKETA		0 euro
ERABILERA BAKOITZEKO TARIFA	0-30 min	2,00 euro
	30-60 min	+2,50 euro
	60-90 min	+2,50 euro
	90-120 min	+2,50 euro
	+ 120 min	+6,00 euro/orduko (edo zatikia)

## 3) 5. artikuluan Jasotako Deskontuak

Hilabete batez zerbitzuaren hogeita hamar erabilera edo gehiago egiten dituzten erabiltzaileen kasuan, %50eko deskontua egingo zaie erabilera-tarifari. Deskontu hori betekizun hori bete eta hurrengo hilabetean aplikatuko da. Era berean, mugikortasun jasangarria sustatzeko kanpaina edo ekitaldi zehatzengatik erabilera-tarifaren gaineko %100erainoko deskontua jasoko dute.



## SECCIÓN I

## ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

Diputación Foral de Bizkaia

Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo

**DECRETO FORAL 79/2024, de 4 de julio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba la modificación del Decreto Foral 141/2023, de 7 de septiembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se acuerda la fijación del precio público regulador del servicio público «Bizkaibizi».**

A los efectos de promoción de la movilidad sostenible que facilite la consecución de los objetivos concretos previstos en el artículo 100 de la Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible, la Diputación Foral de Bizkaia y nueve (9) ayuntamientos del margen de la ría (Barakaldo, Berango, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao) suscribieron en febrero de 2022 un Convenio de Colaboración para la implantación de un servicio público de alquiler de bicicletas, denominado proyecto BizkaiBizi, el cual es un servicio de naturaleza no coactiva, teniendo el firme compromiso de fomentar la introducción de la bicicleta en el sistema de transporte ordinario como alternativa a los otros medios de transporte, y desde ese compromiso de promoción de la movilidad sostenible apuestan por ofrecer a la ciudadanía un servicio de préstamo al público de bicicletas, como medio de transporte público medioambientalmente sostenible para desplazamientos en el ámbito interurbano.

El cobro de la contraprestación económica, como mecanismo para regular la utilización del servicio Bizkaibizi, persigue que la prestación al público del servicio Bizkaibizi sea en clave de universalidad, accesibilidad y continuidad del servicio, y que el mismo uso del sistema se adecue a la nota de racionalidad.

Igualmente, los recursos generados por el abono de los precios públicos por parte de las personas usuarias servirán para hacer frente a los gastos derivados de la implantación del servicio Bizkaibizi.

Con fecha 7 de septiembre de 2023 se aprueba el Decreto Foral 141/2023 por el que se acuerda la fijación del precio público regulador del servicio público de «Bizkaibizi» donde se establece en su artículo 5, la estructura del cobro de la contraprestación económica por el uso del servicio que se fundamenta en un abono que podrá ser de hasta un año, un precio por servicio modulado en franjas horarias, y una serie de descuentos posibles a personas usuarias, detallado todo ello en el anexo del propio decreto.

Desde la puesta en marcha del servicio, se ha detectado la necesidad de introducir una modalidad de uso ocasional del servicio, que permita el alquiler de la bicicleta abonando exclusivamente una tarifa correspondiente al tiempo de uso de la bicicleta, sin que implique el pago de importe alguno en concepto de abono.

Para cubrir dicha modalidad de uso ocasional, se han establecido unas tarifas específicas que se detallan en el Anexo final para la modalidad de uso ocasional, manteniéndose en todo caso las tarifas establecidas en el Decreto Foral 141/2023, de 7 de septiembre, por el que se acuerda la fijación del precio público regulador del servicio público de «Bizkaibizi».

Asimismo, queda suprimida la Disposición Transitoria única referida a las tarifas hasta el 31 de diciembre de 2023, así como el apartado primero del Anexo, por tratarse de elementos normativos de carácter temporal los cuales ya han perdido su vigencia por el mero transcurso del tiempo.

Cabe señalar que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, en la elaboración del presente decreto se han emitido los siguientes informes:

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.
2. Informe Jurídico del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo.



3. Memoria económica fiananciera del artículo 28 de la Norma Foral 4/1990, de 26 de junio, de Tasas, Precios Pùblicos y otros recursos tributarios de la Administración Foral de Bizkaia
4. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
5. Informe de control económico.
6. Informe de fiscalización del gasto.
7. Informe de legalidad.

En relación con la competencia del órgano para la aprobación definitiva de la disposición, a tenor de los artículos 17.1.4º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, en conexión éste con el artículo 17.2.º a) del mismo texto normativo foral, así como de conformidad con el artículo 28 de la Norma Foral 4/1990, de 26 de junio, de Tasas, Precios Pùblicos y otros recursos tributarios de la Administración Foral de Bizkaia, la aprobación de la presente disposición normativa corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por lo expuesto, a propuesta de la diputada foral de Transportes, Movilidad y Turismo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral,

DISPONGO:

**Artículo Único.—*Modificación del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2023, de 7 de septiembre por el que se acuerda la fijación del precio público regulador del servicio público de «Bizkaibizi»***

El Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2023, de 7 de septiembre, por el que se acuerda la fijación del precio público regulador del servicio público de «Bizkaibizi», queda modificado como sigue:

*Uno.* El artículo 5 queda redactado del siguiente modo:

«El cobro de la contraprestación económica, como mecanismo para financiar el servicio de Bizkaibizi en los términos del convenio tendrá la siguiente estructura:

- Se establecerá un precio de abono que podrá ser de duración temporal, hasta el máximo de un año natural (abono anual). Cuando se trate de la modalidad de uso ocasional del servicio, el importe del abono será de cero euros (abono ocasional).
- Se establecerá un precio por el uso del servicio Bizkaibizi, modulado en franjas de 30 minutos durante las dos primeras horas, y en franjas de 60 minutos hasta el uso máximo permitido regulado en el reglamento. Dichas tarifas serán las correspondientes a la modalidad de uso del servicio utilizado (modalidad del abono), según se indica en el anexo.
- Se podrán realizar descuentos en los dos puntos expuestos anteriormente, y según el anexo al presente Decreto Foral, a personas usuarias que hagan un uso de la bicicleta como medio de transporte habitual, así como por motivo de diferentes campañas realizadas a lo largo del año, con el fin de incentivar la movilidad sostenible. De todo ello se informará de forma detallada a través de la página web [www.bizkaibizi.eus](http://www.bizkaibizi.eus)»

*Dos.* Se suprime la Disposición Transitoria única por pérdida de vigencia.

*Tres.* El anexo queda modificado, por un lado, eliminando el apartado primero del mismo por pérdida de su vigencia; y, por otro, modificándolo en los términos de la modificación realizada sobre el artículo 5. El anexo modificado queda incorporado al presente Decreto Foral.

**Disposición Final Única.—*Entrada en vigor***

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y surtirá efectos hasta que se proceda a su efectiva modificación o derogación.

En Bilbao, a 4 de julio de 2024.

La diputada foral de Transportes,  
Movilidad y Turismo  
SONIA PÉREZ EZQUERRA

La Diputada General  
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA



## ANEXO

## 1) Modalidad Abono Anual

		Euros
ABONO ANUAL		25,00 euros/año
TARIFA POR USO	0-30 min	0,15 euros
	30-60 min	+0,35 euros
	60-90 min	+0,50 euros
	90-120 min	+0,50 euros
	+ 120 min	+6,00 euros/hora (o fracción)

## 2) Modalidad Uso Abono Ocasional

		Euros
ABONO		0 euros
TARIFA POR USO	0-30 min	2,00 euros
	30-60 min	+2,50 euros
	60-90 min	+2,50 euros
	90-120 min	+2,50 euros
	+ 120 min	+6,00 euros/hora (o fracción)

## 3) Descuentos Contemplados en el artículo 5

En el caso de personas usuarias que durante un mes realicen treinta o más usos del servicio, se verán beneficiadas con un descuento del 50% sobre la tarifa de uso. Dicho descuento se aplicará en el mes siguiente al cumplimiento de este requisito. Igualmente, se verán beneficiadas con un descuento que puede llegar hasta el 100% sobre la tarifa de uso por razón de campañas o eventos concretos para incentivar la movilidad sostenible.